



IV. «RIKARDO ARREGI» KAZETARITZA SARIA

AZKEN ERABAKIA



IV. «Rikardo Arregi» Kazetaritza Saria epaitzeko xedez Andoaingo Udalak izendatutako Epaimahaiak, M^a Pilar Collantes Ibáñez, Andoaingo Alkatea eta Mahaiburu dena, Jesus Etxezarraga Zuluaga, Elixabete Garmendia Lasa, Joserra Garzia Garmendia, Josemari Otermin Urtizbera, eta Idazkari lanetan eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe jardun duen Jon Unanue López-ek osatu duten Epaimahaiak alegia, honako azken erabaki hau ezagutzera ematea akordatu du:



1.- Eskumen eta irismen zabalagoz jokatzeko helburuarekin, aurtengo edizioan Andoaingo Udalak, Epaimahaiak egindako proposamenari jarraiki, saria arautzen duten oinarriak aldatu zituen. Horrenbestez, aurtan «Sekzioa» atalekoekin batera Epaimahaiak bere begitik egin du «Baloraziozko kazetaritza» eta «Erreportaia» ataletako jarraipen eta hautaketa lana. Hori hala izanik, aurrerago azalduko dituen hainbat kontsiderazio hausnartzeko aukera izan du Epaimahaiak jarraipen eta hautaketa lanak egiteko prozedura horren argitara. «Herrietako aldizkariak» atalean, berriz, lanak egileak berak aurkezteko erizpideari jarraitu zaio aurtan ere, eta, denetara, hogeita hemeretzi lan aurkeztu dituzte herrietako aldizkarietako kazetariak.

2.- Sariak erabakitzekeo Epaimahaiak hasitako prozedura horri esker «Rikardo Arregi» Kazetaritza Sariaren irismena osoro hedatzeko aukera suertatu zaigu «Sekzioa», «Baloraziozko kazetaritza» eta «Erreportaia» ataletan, Euskal Herri osoan barrena argitaratutako prentsa idatzian arakatuz euskarazko prentsa normalduan eredugarri gerta litezkeen lanak hautatu eta saritzeko bidea behin-betirako zabalduz.

3.- Andoaingo Udalak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz deitutako sari honen oinarriek garbi asko azaltzen dute euskaraz egindako kazetaritza prestu eta modernoaren beharra; eta, hala prestutasuna nola modernotasuna, orain inoiz baino gehiago, ezinbesteko zaizkio euskarazko kazetaritzari, aspaldidanik behar-beharrezko bitarteko bilakatu bait da euskararen eta euskal gizartearen normalkuntzarako ahaleginean. Bada, aurtan, behingoz Epaimahaiak bere eskutik arakatu behar izan duenean euskaraz idatziriko kazetaritza zernolakoa den eta zein noranahikotasunez ari den eragiten, batetik, euskal gizartean eta, bestetik, euskararen normalkuntzan, izan du aukerarik ikusi eta aztertutakoaren arabera hainbat hausnarketa egiteko.

4.- Hausnarketa horien ildotik Epaimahai honek adierazi beharra dauka, inoiz esatekotan, geroari begira euskal kazetaritzari aurrez-aurre zantzutzen ari zaion bidea ez dela nahi eta xede genukeena bezain oparo, zabal eta iaioa, eta horrek derrigor izango duela gerora eragin makurrik euskal kazetaritzaren ontasun eta kalitate mailan. Nahitaezko deritzogu lenbaitlen euskarazko kazetaritzako produkzioa areagotuko duen neurri eragilerik gauzatzeari. Gaur egungo euskal kazetaritzan asko dira, orohar hartuta, ontasun eta kalitate mailan punta-puntako gertatzen diren ihardun eta lanak, batazbeste gaurko euskal kazetaritzari oso kalitate maila bikainekoa eriztera gakartzatenak. «Rikardo Arregi» Kazetaritza Sarian orain arte onetsi diren lanak ontasun maila horren lekuko dira, eta orain ezagutzera emango ditugun sariak maila hori berresteaz gain suztatu egiten dute euskal kazetariengan dugun itxaropena.

5. Gizarte-bizitzan eta euskararen normalkuntzan eragin behar duen kazetaritzari gagozkionez, kazetal ihardunak berezko dituen ezaugarriei dagozkien traba eta eragozpenak dira, lehen-lehenik, oso kontutan hartu beharrekoak, eta, horiekin batera, euskal kazetariok gainditu beharreko ahalegina herritarrei hurbileko eta gogoko zaien kazetal hizkuntza osatzeko. Iazko edizioan ere aipatu bezala, guztiorri erdarazko kazetaritzan

gero eta baliabide ugariagoz jokutzen den lehia gehitu ezker, euskarazko kazetaritzarena erronka itzela da, eta erronka horri lehen ikuspegi kezkatiz aipatu dugun arazoaz ezin zaiolako aurre egin, hiri ala biziko dema da euskarazko kazetaritzan lehentasunezko planteamenduekin ahalegintzea aurrerantzean.

6. Luze jo dugu esandakoak azaltzen eta ordua da, beraz, adierazitako guztiarekin zerikusirik ez duten sariei behingoz harrera egiteko.

Pozgarri eta suspergarria da benetan epaimahaikideontzat, laugarren edizioa izanik gaur aurkezten ditugun sariak banatzeko aukera izatea, lan eta ihardun eredugarriak saritzera jarrita, garbi ikusten bait du saritutakoen ildo berdinetik jorratu beharra.

7. Egoki deritzogu, dena den, urtero gogorarazi ohi dugun erizpide bat laugarren edizioa honetan ere garbi azpimarratzeari: *«huts-hutsik, idazlanen eta sekzioen kazetal balioa hartu da kontutan, beste edonolako kontsiderazioren gainetik eta aurrerago aipatzen den beste zenbait erizpideren kalterik gabe. Beste hitzetan esanda, euskarazko prentsa normalduan inolako homologazio arazorik gabe leku propioa izango luketeenak saritu dira»*.


8. Honako hau da, guzti hori kontutan hartuta, sariei dagokienez Epaimahaiak bere egiten duen erabakia:


9.1. «Herrietako aldizkariak» ataleko saria, 200.000 pezetaz hornitutakoa. Aipatu erizpideez gain erabakiorra izan da saria ematerakoan egileak artikulu berean gaiari buruzko datu ezberdinak trebetasunez erkatu eta herritarren meneko idazkera egoki batez

azaldu izana, irakurgai gisa oso lan interesgarri tajutzea eta landutako gaiari tratamendu egokia ematea. Bestetik, saritutako lana ez da, kalitateari dagokionez, isolatuta geratu argitara eman duen aldizkariaren baitan eta, horrenbestez, Epaimahaiak egoki deritzo Orioko «Karkara» aldizkariak aurkeztutako gainerako lanei ere bere onspena emateari.

 Saritutako idazlana: «**Oriotarrak eta soldaduzka**», Orioko Karkara aldizkariaren 10. zenbakian argitaratua.

Autorea: **Iñaki Iturain Azpiroz** jauna.

 9.2. «Sekzioa» ataleko saria, 400.000 pezetaz hornitutakoa. Kasu honetan, saritu beharrekoa «*mailarik altuena lortu eta gorde duen sekzioa*» izan behar dela diote, hitzezitz, Andoaingo Udalak ezarritako oinarriak. Bada, aurten, saritutakoa hautatzerakoan Epaimahaiak oso kontutan hartu ditu, orohar, sekzioak euskarazko kazetaritzari ekarritako estilo berrikuntzak eta, bereiziki, egunerokotasunari lotutakoa eta informazio emaile etengabea izateaz gain, gai eta jende berri eta oso bizipen ezberdinen bila joan izana. Era berean, saritutako sekzioaren formulazio neurri batez agresiboak, batetik, beste komunikabideetako kazetarien arreta gutxik bezala ernatzea lortu du, eta bestetik, irakurlearen irakurmina atxekitzea.

 Saritutako sekzioa: «**Eguneko pertsonaia**», Pello Zubiria jaunaren zuzendaritzapeko Euskaldunon Egunkaria-ko azken orrialdean argitaratua.

Sekzioaren egile: Askoren artean idatzi eta osatua **Alazne Iturriotz** anderearen ardurapean.

9.3. «Baloraziozko kazetaritza» ataleko saria, 400.000 pezetaz hornitutakoa. Lehenago aipatu erizpideez gain, komenigarri deritzogu oinarrietako laugarrenak atal honetako sariari buruz dioena hitzezitz emanda gogorarazteari: *«fenomeno puntual eta konkretuen azalpenetatik areago doazen artikulua izan beharko dute hauek, nahiz eta datuak ematen dituzten eta, beste zenbaiten artean, gertakizun konkretuetatik abiatuz egindako lanak izan. Sari hau erabakitzerakoan, Epaimahaiak oso kontutan hartuko ditu egileak aztergaiari buruz egiten duen hausnarketa edo balorazio propioaren sakontasuna eta zorrotasuna»*. Zalantza izpirik gabe, Epaimahaiak saritutako lana baloraziozko kazetaritzan eredugarritzat jo du, zertzelada ezberdin dexentez gorputz batetara lotuta eta balorazio pertsonalez egokiro zipriztinduta osatzeaz aparte, artikulua benetan esataria delako, eta estilo bikain eta apartaz idatzia.

✍ Saritutako artikulua: «**Kultura**» izenburukoa, **Jakin** aldizkariak argitaratua bere 68. zenbakian.

Autorea: **Ramon Saizarbitoria** jauna.

9.4. «Erreportaia» ataleko saria, 400.000 pezetaz hornitutakoa. Oinarrietako bostgarrenak honela dio atal honi dagokionez: *«sari hau erabakitzerakoan Epaimahaiak besteak beste eta batez ere, estiloa, orijinaltasuna, datu-bilketaren exhaustibotasuna eta zailtasuna hartuko ditu kontutan»*. Erizpide horiei estu-estu lotutako lana da aurren saritutakoa. Baina, horretaz gain, erabakiorra izan da egileak gaia aukeratu eta artikulua lantzean azaldutako kazetal ikuspegi eta iaiotasuna, nola, baita ere, erreportaia duin bat osatzeraino egileak egindako ahalegina.

✍ Saritutako erreportaia: «"Klik" baten ondorenak», «El Diario Vasco» egunkariaren **Zabalik** gehigarrian 1992ko urtarrilan hiru emanalditan argitaratua.

Autorea: **Pako Aristi** jauna.

Honaino, bada, IV. «Rikardo Arregi» Kazetaritza Sariari dagokion azken erabakia, Epaimahaikide guztiok ontzat eman eta sinatu duguna gaur, Andoainen, mila bederatzirehunda larogeitamabiko uztailaren hamaikan.

Stua.: M^a Pilar Collantes Ibáñez

Stua.: Jesus Etxezarraga Zuluaga

Stua.: Elixabete Garmendia Lasa

Stua.: Josemari Otermin Urtizbera

Stua.: Joserra Garzia Garmendia

Stua.: Jon Unanue López